KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2023ko ekaina - 239 zkia.



Miren Zubizarreta “Ametza”

Ametzaneko etxia, 100 urtetan denontzako etxia izan da

KULTUR ANIZTASUNAREN ASTEA • KRESAL USAIÑEKO OTARRAK
SUA LETE MEXIKON • MENDIZALETASUNAREN TRANSMISIOA

lea artibai
ikastetxea

LANBIDE HEZIKETA



GOI-MAILA:

- ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA
- EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

ERDI-MAILA:

- MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA
- BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK
- ELIKAGAIAK ELABORATZEKO TEKNIKARIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOETAKO TEKNIKARIA

Berriak

Eman izena

GURE LANBIDE HEZIKETAN !

info@leartik.eus

leartik.eus

946 169 002 Markina-Xemein

HETEL

Samiela

Haur Eskola (0-2urte)

2023-2024 ikasturteko matrikula epea zabalik



Urte osoan zehar matrikulatzeko aukera

BAKOITZAREN BEHARRETARA EGOKITUA

Haur Eskola:
7:30etatik 19:00etara

Zaintza urte osoan zehar (2 urtetik 12 urtera)
7:30etatik 8:45tara
16:00etatik 19:00etara

Opor egunak (Gabonak, Aste Santuak, ekaina, uztaila)
Haur Eskola eta Haur Hezkuntzako ikasleak umezaintza zerbitzua erabiltzeko aukera

* Beti ere, legeak ezartzen dituen ordu kopuruak errespetatuz.

www.samiela.eus zuzendaritza@samiela.eus 943 60 31 95

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Alzheimer elkartea 943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Ibon Aginaga Imaz

ITXAROPEN HAZIAK

Bi hilabete inguru izango dira, herriko ikastetxeetan, 2. mailako (LH2) umeei *Ispiluari begira* izeneko saioa eman nienetik. Bi hilabete inguru, Mutrikun Euskararen Astea antolatu genuenetik. Gerora behin baino gehiagotan gurutzatu naiz kalean ume horietako batzuekin. Bakarrik doazenean, askotan, erdi lotsatuta agurtzen naute; taldean doazenean, ordea, denak batera abesten ibiliko balira bezala. Grazia, eta aldi berean, poza ematen dit egoerak. Ilusioa. Lorail hasierako saio haietan barneko zerbait ukituko banie bezala; emandako azalpenez eragingo banie bezala. Esandakoaren laurdenarekin geratuko balira, behintzat, ni pozik, askotan ez dira ohartzen gure berezko aberastasunarekin eta. Irribarre batez erantzuten diet.

Lorailaren hasieran esan dut, bai. Maiatzari loraila ere esaten zaio, eta herri gutxik izango dute guk herrian dugun besteko lorategi ederra; askotariko lorez (umez) osatua, gainera. Bakoitza mundu bat da, eta mundu hori neurri handi batean etxekoek eraikitzen dute (betiere, ikastetxeekin ahaztu gabe). *Giltzak etxean* jarraitzen du zioen Hernaniko euskara teknikari ohiak orain gutxi idatzitako artikuluaren izenburuak. Dena ez dago gurasoen edota ikastetxearen esku, aisialdiak sekulako eragina du haiengan; halere, etxean jasotakoak umearen izaeran berebiziko garrantzia du, handik eratorritako jarrerak gailenduko baitira, normalean, bere jokabidean.

%80koa da Mutrikun euskararen kale erabilera. Datu ederra da, baina ume eta gazteen euskararen erabilerak nabarmen egin du behera azken 5 urteetan (%10 inguru) eta hori alarma piztekoa da.

Askotan ez gara ohartzen gure eredugarritasunaz/erreferentzialtasunaz (herri eta norbanako bezala). Herritar askok, ziurrenik, ez dute jakingo Mutriku munduko udalerri euskaldunenetako bat denik ere; hau da, ez bakarrik Debabarrenako euskaldunena, alde handiz. UEMAn dagoen herria da gurea, eta euskararen arnasgunea gainera. Hala ere, lo-zorroan jarraitzen badugu korronteak erdal itsasora eramango gaitu, eta orduan bai ez dela existituko Mutriku euskaldunik, ez eta Euskal Herririk (euskararen herririk) ere.

Gure herriko umeak, berton geratuko direnak, izango dira etorkizuneko Mutriku euskaldun izaten jarraitzea egingo dutenak, gure herri-nortasuna eta bere baloreak ondo transmititzen badizkiegu, behintzat. Pantailek (sakelako telefonoak, tabletak, sare sozialak...) eragin izugarria dute eurengan, baina baita helduagoon hizkuntza joerek ere. Ispilu dira. Euskaraz egiteko esaten diegu, eta gero... Aukera dugunean, euskaraz egiten dugu beti? Guztiok? Hortik hasi beharko ginateke. Geuk egin, balioan jarri, eta geu eredu izatetik hasita, eurei bertoko hizkuntzan bizitzeko baliabideak eskainita. Erraz antzeman daiteke ume bat ikusita bere gurasoak euskaltzaleak diren ala ez. Askok ahalegin berezia egiten dute eta hori txalotzekoa da.

Baliabideak (euskara bizi eta ikasteko), ereduak, aldeko jarrerak, ekimen edota egitasmo eredugarriak... behar ditugu. Gurasoek euskaraz jakin ez arren ere, euskararenganako jarrera ona izateak euren umeengan eragin nabarmena izaten du.

Gure lorategi eder honetan, zoritxarrez, zimeltzen hasitako hostoak ere ikusten ditut. Kalean gurutzatzen ditudan ume horien irribarreak gogoan, jarrai dezagun, bada, herria elikatzen eta gure itxaropen haziak ureztatzen!

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Josu Larrañaga,
Inhar Mutiozabal
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:
Mutrikuko Udala

www.lurraldebus.eus

900 300 340

neguko ordutegia uztailaren 31 arte

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	Debaraino (20:40)
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

*lanegun ostiraletan

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	*23:20	*01:10
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	23:30	01:20
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:55	01:40
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

*lanegun ostiraletan

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	*22:05	
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:15	
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:30	
Mutriku	6:55	7:55	orduro	20:55	22:40	

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	19:10	20:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	19:40	20:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	---	---
Mutriku	9:25	11.25	13:25	16:25	18:25	---	---

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

ig. ig./ jai
lr. lar.

Donostia	10:30	14:30	17:00	ig.20:30	lr.21:00	
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50	
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	lr.7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	lr.22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:30
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

GAUEAN Mutrikutik: ostiraletan 23:25 eta 1:15; larunbatetan 23:25, 23:55, 1:55, 3:55, 5:55.

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	lr.6:50	7:45	orduro	19:45	lr.20:45	lr.21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	lr.21:55	lr.22:55	23:00

GAUEAN Mutrikura heldu: ostiraletan 0:25; larunbatetan 1:10, 3:10, 5:10, 6:10. Eibartik -25 min.

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	lr.8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	lr.9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	lr.22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	lr.9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	lr.8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	8:29	22:29
Donostia	7:38	8:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxieus/garraioa

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

326 AUSARTENTZAKO GUTUNA

Ona da esker onekoak izatea. Eskerrak eman nahi dizkiegu 326 mila aldiz, maiatzaren 28an BERDIAKi botoa eman zioten ausartei.

Beti jakin izan dugu besteak gehiago direla, baina EZ digute erakutsi hobeak direnik. Finkatutako proiektu batekin jarraitzen dugu (oraingoz gutxiengoa), eta zenbat eta denbora gehiago igaro, orduan eta arrazoituagoa da.

Etorkizuna eta botoaren artisauak gara, gure lana ez da irabaztea, LAGUNTZEA baizik.

Gutxiesten gaituztenak, gaitzesten gaituztenak, agurtzen ere ez gaituztenak... Indar berriak ematen dizkigute energia negatibo hori indar positiboan bihurtzeko, Mutriku Ama Naturarekin, Ondarearekin eta jende onarekin aske eta errespetuz bizitzeko kabi bihurtzeko.

Eskerrik asko laguntzeagatik eta laguntza hori itzultzeko lanean jarraituko dugu.

326 Mila Esker!

BERDIAK Mutriku

MUTRIKUN ERE, DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN

Mutrikun zaintza-lanak berrantolatzera goaz, bazatoz?

Martxoaren 8an iragarri genuen, eta badator. Bi greba feministetan emakumeok* geldituta mundua gelditu ondoren, bueltan gatoz Greba Orokor Feminista batekin, oraingoan zaintza-lanak berrantolatzea helburu, "Denon Bizitzak Erdigunean" lemapean.

Pandemia lehertu zenean Mugimendu Feministako eragile eta kide ezberdinek koordinadora bat sortu genuen zaintzen problematika agendaren erdigunean jartzeko, eta urtebete baino gehiagoko prozesu baten ondoren, Mutrikun ere hasi gara.

Zaintza-lanak oinarrizko lanak dira bizitza sostengatzeko. Zaintza-kateek eusten dute gure familia, gure komunitate hurbila, gure jendartea; etxeko-andretik hasi eta familia medikura, aitonaren zaintzailetik zahar etxeetako garbitzailera. Zaintza horiek, ordea, emakumeek* egiten dituzte: baldintza prekarioetan enplegu arloan eta banaketa desorekatuan (eta ordainsaririk gabe) familietan. Izan ere, gaur egungo egoeran duintasun ezaren muturreraino iritsi dira. Are, argi geratu da, elkarren jarraian jarritako domino fitxen antzera, zaintzailea jausten denean, bere aurreko guztiak erortzen direla lurrera.

Egoera honen aurrean urgentziazkoak diren hainbat neurri exijitu nahi ditugu: zaintza emateko konpromisoa eta jasotzeko eskubidea izatea pertsona guztiek (zaintzarako eskubide kolektiboa); enpleguaren arloko zaintza-lanen baldintzak eta pentsioak duintzea; pribatizazioarekin amaitu eta sistema publikoa indartu eta garatzea; edota atzerritartasun legearen abolizioa, emakume migratu eta arrazializatuak babesgabe eta prekarietatera kondenaturik uzten baititu. Aldarrikapen hauek guztiek oihartzuna izan dezaten eta eraldaketak abiarazteko baliatuko dugu Greba Orokor Feminista.

Zaintza lanak aitortu eta birbanatu nahi ditugu, zaintza eredu publiko eta komunitario bat garatu. Arnas luzeko prozesu horretan, alternatibak proposatzen, agenda komuna eraikitzen eta gatazkak azaleratzen hasi nahi dugu herrian eta, horretarako, Mugimendu Feministatik haratago, Mutrikuko gainerako eragile eta norbanakoak ere behar zaituztegu (pentsionistak, baserritarrak, zaintzaileak, guraso elkarteak, sindikatuak, jubilatu-taldeak, gazte mugimenduak...). Izan ere, zaintza eskubidearen aldeko borroka jendarte osoari begirakoa da. Denon bizitzen inguruan ari gara eta guztiok hartu behar dugu ardura.

Antolatuta gaude, eta dagoeneko herritar talde bat hasi gara lanean Mutrikuko zaintza-sistema iraultzeko. Ekainaren 18an egin genuen aurkezpena Beheko Plazan, eta hemendik aurrera izango duze gure berri.

Mobilizatzeko unea da, kaleak hartzekoa eta erantzuleei interpelazio zuzena egiteko momentua. Mutriku antolatu bat behar dugu, aliantza zabalen bitartez, eta horretarako zuek ere behar zaituztegu. Mutrikuko zaintza sistema iraultzera goaz, bazatoz?

INSTAGRAM kontua:
@mutrikunbizitzakerdigunean

EMA
Emakumeak Mutrikun Abian

ESKERRIK ASKO, MUTRIKU!

Maiatzaren 28ko hauteskundeen ostean mutrikuarrei eskerrak eman nahi dizkiegu emandako babesarengatik eta konfidantzarengatik!

EH Bildu izan da alkatetzarako zerrenda bozkatuena, eta hori berri ontzat jotzen dugu, 2011 urtetik herritarrek EH Bilduri emandako babesa etengabea izan delako. Aurtengoan boto galera izateak hausnarketa sakonagoa eskatuko badigu ere, herriak azken lau urteetan egindakoa ontzat eman duela uste dugu, eta aurretik ditugun lau urteetan udala gidatzeko konfidantza eman digula.

Herritarren babesa berriz jasotzeak bi legealdi jarraian lotzeko aukera emango digu, eta horrek ardura handia eskatuko digu. Ardurari heldu egingo diogu, eta herriarentzako etorkizuna prestatzen eta gauzatzen jarraituko dugu, herritarrak, mutrikuarrak, ardatz hartuta.

Hiru ildo nagusi hartuko ditugu hurrengo urteetan, kanpainan adierazi genuen moduan: pertsonak, eguneroko bizimodua eta etorkizunaren prestakuntza.

Hiru ardatzetan mutrikuarrak izango ditugu gogoan. Lehenik, mutrikuarrik atzean ez geratzeko bideak aztertu, landu eta erabakiko ditugu; bigarrenik, mutrikuarrentzat eguneroko bizimodua erosoagoa eta bizigarriagoa izan dadin neurriak hartzen jarraituko dugu, zaharrak zuzenduz eta egokituz zein berriak pentsatuz. Hirugarrenik, mutrikuarrekin pentsatu eta erabakiko dugu herritarrok nahi dugun etorkizuneko Herria.

Guztia, herritarrekin eta herritarrentzat egingo dugu, eta aurretik dugun bidean bidelagunak beharko ditugula jakinda, bidelagunak herrian bilatuko ditugu lehendabizi, eta herritik kanpo ondoren. Herrirako egoki diren ekarpen guztiak jaso eta aztergai hartuko ditugu, bai udalean bai udalerrian.

MAITE DUZUN MUTRIKU mutrikuar guztion artean EGINGO DUGU.

EH BILDU MUTRIKU

MUTRIKUN "ARAZO TEKNIKOAK"!

Denok dakigun bezela, badira urte mordo bat Mutrikun portua-hondartza-dikearen inguruko proiektua zela eta gizarte arrakala zabaldu zela, eta ondorioz proiektuaren aurka talde ezberdinak -Santakarra Bizirik, Hobetu Leike-sortu eta desagertu ziren bezala, BERDEAK+ INDEPENDENTEAK herri plataforma ere politikara salto egin zuen orain dela 16 urteko udal-hauteskundetan aipatutako obraren aurkako iritzia landuz eta plazaratuz.

Aurtengo udal-bozetarako aurreko hilabetetan esanguratsua izan da Danborzaleak taldeak abenduan bultzaturiko herri-erreferenduma, non jaso ziren 871 bozetatik 819 herritar kanpoko dikearen ez luzatzearen alde agertu giñen. Orduan abstentzioaz eta partaidetza txikiaz hitz egin zen, baina herritarren iritzi eta ariketa demokratiko argia hor jasota gelditu da hurrengo belaunaldietarako nahiz eta Udaletxean zein bestelako erakunde ezberdinetan jarraipenik ez zaion eman herritarren ezezko potoloari. Gerora, dikea luzatzeko obrak "arazo teknikoengatik" udaberrian gelditu dira, eta herritarrak informazio garbi eta zehatzagorik gabe jarraitzen dugu…

Eta maiatzeko udal hauteskundetan ere abstentzioaz gain boto zuriak eta baliogabeak sendotu direnean zinegotzi zenbakiak mantendu dira: EH Bildu nagusitu da 1207 botoekin 7 zinegotzi (2019an, 1396 bozka), bigarren EAJ 892 botoekin bost zinegotzi (2019an 1076), hirugarren Berdiak Equo 326 botoekin zinegotzi bakarra (2019an 262 bozka B+I bezela). D´Hont legearen eraginez kandidatura txikiak aukera gutxirekin gelditzen gara alderdi nagusien aurrean, adibidez nahikoak izango ziren beste 19 bozka Berdiak 2. zinegotzia lortzeko. Hortxe aukera! Hauek ere arazo teknikoak ote?

Berdiaken ez dakigu Mutrikun zeinek bozkatzen duen eta zeinek ez, betidanik erabakita baitaukagu hautets-mahaietan ez garela erroldan izen-abizenak apuntatzen egon behar, hori kontrol-sozialerako tresna dela deritzogu, bakarrik zenbaketaren unean parte hartzen dugu. Beraz, izan daiteke herriko neska-mutil gazteenek beraien aldarrikapen edo deskontetua adierazteko abstentzioaz baliatzea, edo berdin pertsona helduagoek ere. Nork daki? Gainera guk hauteskunde astean bertan herritarrekin ez dugu bilerak burutu zerbait galdetu edo/eta eskaintzeko. Oraingoz gurea ez da kea saltzea, gauzak argi eta garbi esaten ditugu. Arazo teknikoa?

P.D. edo azken oharra: Noski, gu oso harro gaude gure inguruko pertsona handi eta txiki guztietaz, izan familikoak, izan ezagun edo lagunak, izan boto-emaile edo ez, izan Mutrikuko herritar edo beste nonbaitekoak. Hori bai, ez dakigu gure inguruko guzti hoiek gutaz harro dauden!

Atzetik ez daukagu beste edozein alderdiren egitura zein baliabiderik, baina behintzat Udaletxean beste ondorengo lau urte hauetan bestelako ahotsa entzuten jarraituko da.

IDOIA ARRILLAGA AGIRRE









Uzuri RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

KULTUR ANIZTASUNAREN ASTEA

Maiatzaren 21ean Kultura Aniztasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen zenez, astean zehar ekintza ezberdinak ospatu ziren udaleko Kultura Aniztasunaren aholkularitzatik bultzatuta eta Mutrikun bizi diren atzerritarren partaidetza zabalarekin.

Maiatzaren 18an Zabielen Omar Thior haurrentzako ipuin kontalari senegaldarra zuzendu zitzaien, gazteleraz, bildutako 30bat pertsonei "*Soy un punto*" ipuinarekin, non metafora artean arrazismoa, bazterketa eta desberdintasunak aipatzen zituen, eta umeen partehartzea bultzatu gai horiei buruzko ikuspuntuak agerrarazteko.

Egun berean eta Zabielen, baina ordu bete beranduago LOTUNE –Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista–ren aurkezpena egin zen, gonbidatutako ordezkari batek azal zezan bertako esperientzia. Oso inte-resgarria eta aztertzeko proiektua dela diote udal aholkularitzako partaideek.

Maiatzaren 20an, larunbatean, ospatu zen Beheko Plazan ***III. KULTURARTEKO TOPAKETA: GASTRONOMIA ETA TRADIZIOA PARTEKATUZ*** jaialdia, non zazpi herrialdek hartu zuten parte. Antolaketaren helburua herrian dagoen errealitatearen parte bat ikustaraztea zen, eta, honekin batera, herritar/kultura ezberdinen interakzioa lortzea. Errezetak erabili ziren aitzakiatzat, eta, hauen barruan, hizkuntzen arteko "jolasa": errezeta bakoitzeko herrialdearen jatorrizko hizkuntza eta euskararako itzulpena; gaztelania ere erabili zen beharrezko ikusi ziren errezetetan. Euskararen pareko, herrialde hauetan dauden hizkuntza gutxituen berri ere eman zen, kartel bidez. Eguna iragartzen zuen kartel nagusiak *Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Eguna. Munduko Zaporeak*, partehartzaileen zazpi hizkuntzetan adierazten zuen.

Jaia alaitzeko kontzertua eskaini zuen *Lorea eta Foroya* kultur aniztasunaren adierazgarri den bikoteak.

Balorazio orokorra oso ona izan zen, bai antolatzaile zein partehartzaileen aldetik.








ZELAIETA JATETXEA
Olatz auzoa · Mutriku · 943604595
zabalik asteburuetan
eta jai egunetan

ANAIARTEREN URTEURRENAK

Azken boladan bateko eta besteko komentarioak egon dira Anaiartek antolatutako danborradaren eta abesbatzaren hasieraren inguruan. Anaiarte elkarteko batzordeak jakinarazi nahi du, ez bakarrik bazkideei, baita herri osoari ere, bileren aktak arakatu eta aztertu ondoren, garbi azaltzen dela ANAIARTE elkarteak 2000. urtean antolatu zuela lehendabiziko danborrada, Galbaixo egunaren bezperan. Datu hori kontuan hartuta, 2025 urteko irailean ospatuko da danborradaren 25. urteurrena.

Bestalde, Anaiarte abesbatzak 1999 eman zuen bere lehen urratsa, hain zuzen ere, gabonetan. Beraz, abesbatzaren 25. urteurrena 2024 urtean izango da. Helduko dira ospakizunetara egunak!

MINBIZIAREN KONTRAKO ESKEA

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak ekainaren 3an Mutrikun egindako urteko diru-bilketan parte hartu zuten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkie. Helburu hauekin ospatu zen eguna: gizarte osoak minbizia duten pertsonei babesa ematea; ikertzaile, osasun-langile, boluntario, psikologo eta gizarte--langileekin konpromisoa hartzea; eta ikerketa onkologikorako dirua biltzen laguntzea. Bildutako kopurua, 1.045,23 euro.

Hainbat boluntariok hartu zuen parte jardunaldi solidario honetan, hiriko hainbat tokitan jarri ziren mahaietan banatuta. Urteko diru-bilketaren bitartez, herritarrei elkartea hor dagoela eta pazienteei eta senideei laguntzeko lanean jarraitzen duela gogorarazi nahi zaie. Lortutako diru-baliabideak ikerketa onkologikorako eta elkartearen doako zerbitzuak sustatzeko erabiliko dira, honelakoetan ohizkoa denez.





IKASTOLAN VALENTZIAR IPUIN-IDAZLEA

Goizeko Izarra Ikastolako 4. maila A eta Bko ikasleek proiektu bat eraman dute aurrera: Valentziako "El Castell" ikastetxeko ikasleekin harremanetan egon dira azken hiru hilabeteetan.

Eskutitzak bidali dizkiote elkarri, eta Valentziako bi idazleren liburuak irakurri dituzte gaztelaniaz: Carles Canoren *Te pillé, Caperucita* (antzerkia) eta *Enciclopedia misteriosa de los seres diminutos* Alicia Casanovarena. Asko gustatu zaizkie bi liburuak eta tertulia literarioak burutu dituzte gelan, eta, jakina, irakurritako antzezlana taularatu dute.

Proiektua bukatzeko Alicia Casanova etorri zen Mutrikuraino eta ikasleekin une goxo bat igaro. Gaztelaniaz aritu zen berak umetatik pertsonaia misteriotsuekin bizi izandakoa adierazten, eta nola bizitza hark bultzatu zuen haurrentzako ipuinak idaztera —idatzitako ipuin pilo bat izan zuten eskura ikasleek—. Ordu bete pasa aritu zen konta-kontari, ikasleen atentzioa bereganatzea lortuz, berarekin ekarri zituen tresnez lagunduta. Ondoren, ulertzeko arazorik ez zutela izango esanez, valentzieraz kontatu zien ipuin bat. Eta hala izan zen, kontalari trebearen dohainak erakutsiz, arreta bereganatzea uneoro lortu zuen.

Bukatzeko, gelan landutako galderak egin zizkioten ikasleek Aliciari, baita eskutitzak eman ere El Castell ikastetxeko lagunei eraman ziezaizkien.



FUTBOL KANPUSA

Uztailaren 17tik 21era bitartean, 8 urtetik 14 urte bitarteko gazteentzako Kirolbizi futbol-kanpusa izango da Mutrikun. Kanpusaren kostua 100 eurokoa izango da eta ekainaren 26ra arte eman ahal izango da izena kirolbizi@gmail.com helbidera idatzita edota 653015687 telefono zenbakira deituta.

Real Sociedad-ek erabiltzen duen metodologían oinarrituz, pertsonak eta jokalariak hobetzeko eta formakuntza integral bat lortzeko ideiarekin, ekintza desberdinak egingo dira kirol kontestua erabiliz.

Futbolaren teknifikazioa landuko bada ere,dena futbola izan gabe, kanpusean multikirola landuko da, beste kiroletatik ere ikasteko. Horrekin batera, kirol egokituaren ezagutza, lehen sorospenerako azalpenak eta beste hitzaldi batzuk ere josoko dituzte parte hartzaileek.

Futbol kanpusaren helburuak honako hauek dira:

- Futbol arloan, hobekuntza generiko bat lortzea, teknifikazioa eta taktiken hobekuntza hain zuzen ere.

- Formakuntza integrala: berdintasuna, enpatia, talde-lana, errespetua, lehen sorospenenei buruzko informazioa.

Futbolariak eta pertsonak hobetu nahian, futbolak eta kirolak dituzten baloreak erabiliko dira kanpusean.

Futbolaz gain, beste ekintzabatzuk ere izango dira: Kirol egokitua, Multikirola, Lehen sorospenak, Kirol munduko hitzaldi profesionalak...





TXIMAK
ILEAPAINDEGIA
Eva Ibarrola Urreisti
Jose Mª Altzibar 18 · 20830 MUTRIKU
ileapaindegiatximak@gmail.com
Tel. 943 60 30 03

2023-2027 ALDIRAKO UDAL BERRIA ERATU DA

Joseba Palenzuelak zuzenduko du ekainaren 17an eratu zen Mutrikuko Udalbatza berria. Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetako emaitzak aintzat harturik, EH Bildu-k 7 zinegotzi izango ditu Udalbatzan (Joseba Palenzuela, Ainhize Azpiazu, Aitor Itza, Saioa Elezgarai, Inhar Mutiozabal, Ane Urkiri eta Jon Naberan); EAJ-PNV-k, 5 (Ion Gambra, Xabier Eizagirre, Elena Cebrian, Eukene Arrieta eta Valentin Zumalabe); eta Berdeak-Equo-k, 1 (Iñigo Aguirre). Honenbestez, Malen aurretik izango den hurrengo udalbatzak udalaren antolaketa erabakiko da, Tokiko Gobernu Batzordea eta udal batzorde informtzaileak eratuko dira, eta ondoren hasiko dira udalaren ohizko bilkurak eta lan-dinamikak. Zorterik onena udalbatzakide guztientzat, beraientzat ona bada, herri osoarentzat izango da eta!



ZUBIAGA PLAZA UREZ GAINEZKA

Ekainaren 18an, domekaz, arratsaldeko lehen orduan egindako euri-jasaren ondorioz, Zubiaga plaza inguruko lokalak berriz ere hartu ditu urak. Urtero-urtero errepikatzen den irudia. Konponbide zaila omen du gaiak, baina jarri beharko da udala adituekin lanean urterokoa den arazoari konponbidea emateko. 15 minutuan 13.0 mm-ko prezipitazioak izan ziren, eta ohikoa denez, lur azpiko hodiak ez ziren gauza izan urak egoki bideratzeko. Ea ba, konponketarako bidea bilatzen den behingoz.







Atxukalen eta Xirigunean iragarrita zegoen eguna, Xiri eguna. MRK-k, Arte Eskolak eta Erraldoien konpartsak antolatutakoa. Goizean zehar sortzaileen azoka, Arte Eskolakoen mural margoketa eta Braulio taldearen kontzertua izan ziren protagonista. Bazkalondoan, ostera, eguraldiak txarrera egin zuen eta Xiri gunean iragarrita zeuden kontzertuak bertan behera utzi behar izan ziren. Erraldoiek abaguneak aprobetxatuz egin zuten kalejira txistulariekin batera Atxukaletik Goiko Plazara eta berriro Behekora. Buruhandiek udaletxepean dantzatu behar izan zuten "Alpargata" dantza, eta erraldoiek Beheko Plazan estreinatu zuten bals berria. Bukatzeko Xirin familiakoei eguna gogoratzeko opariak eman zitzaizkien. Egitaraua mantentze aldera, azken momentuko aldaketak egon ziren eta jaiak gaztetxean jarraitu zuen. Dei talde mutrikuarrak kontzertuarekin aurrera egitea erabaki zuen eta Elepunto Dj eta Dj Asak eman zioten amaiera egunari.















LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268



Miren Zubizarreta Agirre “Ametza”

Ametzaneko etxia 100 urtetan denontzako etxia izan da

100 urte beteko dira 2023ko San Pedro egunaren bezperan, ekainaren 28an, Ametza taberna zabaldu zutenetik Laranga auzotik etorritako Jose Mari Zubizarretak eta Galdona auzotik etorritako Justa Agirrek. Hirugarren belaunaldiak negozioari eusten dion honetan, Miren Zubizarreta "Mirentxu Ametza"rengana jo dugu bere akorduko ehun urteko ibilbide horren inguruan aritzeko.

Ametza tabernaren hasiera

Aita zenak oraingo tabernaren aurretik bertan zegoen tabernatxo bat erosita hasi zen guztia, eta ondoren goiko pisuak eta beranduago ondoko etxeko behe solairua eta azpiko lokalak erosi zituen. Lehenengo, taberna, eta gero ostatu eta jatetxe ere izan zen sasoi ezberdinetan. Hantxe bizi ginen gurasoak, zazpi anai-arrebak eta Jose Manuel eta Frantziska osaba-izebak, gurasotzat genituenak eta seme-alabatzat gintuztenak.

Tabernan hazitakoa

Ni tabernan jaio nintzen, eta bizitza osoa eman dut tabernari lotuta. Umetan, hamalau urte bete arte Samielan ikasi nuen, eta hamalau urte betetzean gurasoek etxerako hartu ninduten, hamasei urte bete artean arratsaldeetan Samielara joaten jarraitu banuen ere. Orduan ez zegoen ikasteko aukerarik lan egin beharra baitzegoen, etxeko guztion lanaren beharra zegoen. Niretzat lan berezi bat zeukaten gordeta gurasoek: txibi garbiketa. Izan ere, umetan atzamar “kurioxuak” nituen, txibian sartu eta haiek garbitzeko bereziak. Milaka txibi txiki garbitutakoa naiz!

Urte sasoiak

Negu partean mariñelak ziren nagusi tabernan, eta eguneroko txikiteoaz gain, mahai bueltan tertulian batzen ziren gizonak, hiru txikiko botila hartuta etxetik ekarritako mokaduarekin, batzuetan etxetik ekarri eta tabernako sukaldean prestatzen zena. Giro polita izaten zen hura, lagunartean egoteko aukera ematen zuena.

Uda sasoian herritarrekin batera *beraniantiak* ere etortzen ziren, Deban uda pasatzen egon, Mutrikura oinez etorri eta Ametzanean mokadutxoa egiten zutenak. Gela asko ez geneukan, baina taberna gainean bagenituen batzuk kanpotik etortzen zirenak hartzeko. Haietakoak izaten ziren, baita ere, Mutrikun emaztegaia zuten gizonezkoak.

Neguan nahiz udan, entierro egunak bereziak izaten ziren, goizetan izaten ziren entierroen ostean hamarretakoa egitera batzen zirelako gizonezkoak. Baserritarren entierroetan asko ziren tabernara zetozenak. Bakoitzak berea ordaintzen zuen, baina anda-jasotzaileena hildakoaren etxekoek ordaintzen zuten. Hamarretakoa Jose Mari *Ametza*k aitxa-gure bat errezatuta amaitzen zen. Andren txanda, berriz, domeka arratsaldeetan izaten zen, hiruretan hasi eta latinez kantatzen ziren bezperen ondoren: txokolatada “bolaua”rekin.



Miren aitaren altzoan, amarekin, Eugenio, Eusebio, Juanito, Jose Mari anaiekin eta Dolores ahizparekin.

Oporrak

Ume-umetatik taberna-zuloan bizi nintzen, eta umeak plazan jolasean zebiltzanean ere tabernan izango zen egitekoren bat niretzat. Eleizara joateko bakarrik ateratzen nintzen tabernatik, eta herrian zehar mandatuak egin behar zirenetan.

Hogeita hiru urterekin Rosarito *Poteroe*kin batera egin nuen Mallorkako Palmara bidaia Bartzelonan zehar, eta ordutik ia urtero hartu nuen tartea bidaiaren bat egiteko. Urte osoan lanean jardunda mereziko genituen, ba, oporrak!

Ezkondu ginen urtean ere hilabete hartu genuen eta tarte horretan taberna itxi nahi bagenuen ere, Eusebio eta Juanito anaiek zabaldu behar izan zuten aita hilko ez bazen! Gurasoentzat azkena zen taberna itxita ikustea!

Janari-edariak

Gaurko oparotasunik ez zegoen orduan. Ardoa eta sagardoa ziren ia edari bakarrak, eta kafea ere luxuzko gauza bat

SAGARMIÑA
RAIKETAK S.L.
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com


Jose Luis Lizarzaburu, Mirenen senarra.


Jesusa, Maritxu eta Dolores, Mirenen lehengusinak eta ahizpa, *Ametza*nean zerbitzen.

zen. Ardoa Larraza naparrak ekartzen zigun barriketan, eta botiletara pasatuta saltzen genuen. Kafea ez zetorren prestatuta, eta txigortu beharra izaten genuen. Danbolinean sartuta sutan ipintzen zenean Mutriku osoan zabaltzen zen usaina jende guztiaren poza eraginez. Gerora, pattarrak eta limonadak, gaseosak eta horrelakoak etorri ziren poliki-poliki. Soberano eta Magno bezalakoak agertu zirenean bakar batzuek hartzen zuten erdi ezkutuan lotsatuta.

Jateko kontuan ere ez zen oraingo moduan. Lehen aukera gutxi zegoen eta diru gutxi ere bai. Orduan oilaskoa jaten zen bazkari berezietan, ezkontzetan eta, atera kontuak! Legatza saltsan, oilaskoa, antxoak, txibiak, bixigua... orduan arruntak ziren janariak prestatzen ziren.

Egun seinalatuetan, espezialetan, azeitunak eta limonada hartzen ziren, eta egun handietan kafea ere bai. Kafea orduan gaur langosta jatea modukoa zen.

Komertzialak hasi aurretik, aita zena Azpitira joaten zen asteartero jenero bila: oilaskoa, arraultzak, berdura... Mutrikutik Debara autobusean, Debatik Zumaiara trenean eta Zumaiatik Azpeitira Urolako trenean; jeneroa hartu eta buelta. Aitak joan ezina zuenean niri ere tokatu izan zitzaidan Azpeitiraino joan beharra izatea jenerotara, nire hamalau urtiekin. Baita Farias ederrak ekartzea ere!

Mutrikuko 66 telefono-zenbakia

Ehun urteetan *Ametza taberna* taberna baino gehiago izan da, herriari zerbitzua emateko tokia ere bai. Adibidez, tabernan zegoen 66 telefono zenbakiak zenbat eta zenbat mutrikuarri eman ote zion zerbitzua! Donostiatik ez dakit zein patroiri enkargua emateko *Ametza*neko telefonora deitu, eta portura patroiaren bila; ez dakit zein baserritarri tratantiak enkargua emateko *Ametza*neko telefonora deitu, eta hango puntako baserrira baten bat bialdu behar errekadua emateko... Hura ere bazen tabernaren zerbitzua.

Garbigailua

Ehun urtetan hamaika izan dira gizartian eman diren berrikuntzak, baina, alde handiarekin, garbigailua izan zen androk gehien estimatu genuena. Ordura arte etxeko erropa eta ohial guztiak eskuz garbitu behar izaten ziren inguruetan zeuden ur metala zuten garbilekuetan. Etxean erropa guztiak zinkean sartu eta zinka buru gainean hartuta joan-etorria egin. Mutrikuko lehenengo garbigailua *Ametza*nera heldu zenean asko erraztu zitzaigun lana.

Familiako langileak

Betidanik familiakoak egon gara tabernan, etxekoak eta ilobak-eta, ezkondu ziren artean gurekin egon ziren Jesusa, Maritxu eta Maritxu adibidez; baina kanpoko langileak ere behar izan ditugu, eta guztiak hartu izan ditugu etxekoak bezala. Maritxu Iriondok hogeita bost urte egin zituen gure artean, eta alaba Alaznek hamar. Familiakotzat ditugu. Gaur egun, *Ametza*nean ditugun langileak, Iñaki Tolon aurrean dela, urtero-urtero gure ondoan badaude horregatik ere izango da, etxekotzat hartzen ditugulako.

Hiru belaunaldi eta gero...

Tabernan jaioa izan behar da benetako tabernari sentitzeko. Jaiotzatik jasotakoa eta ikasitakoa nekez eskura daiteke beste inon. Gurean, Jose Mari gure aitak, Jose Luis nire senarrak eta Jose Luis gure semeak ordezkatzen duten hiru belaunaldietan iraun du *Ametza* tabernak. Laugarrenik izango den? Denborak esango digu. Nik pozik ikusiko nuke hala balitz.

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

Kresal usaiñeko otarrak

Poltsak eta kutxak erabiltzen ditxugu gaur egun gauzak gordetzeko eta toki batetik bestera eruateko. Telia eta, batez ere, plastikua han eta hemen. Sasoi baten, baiña, otarrak ziran nagusi; hamaika neurritxakuak eta erabillerak.. aukeran! Danian erabilli dira otarrak, baserrixan, kalian eta baitxa itsasuan ere. Azken horri erreparatuko dixau: portualdian, zetarako erabiltzen ziran otarrak?

Lehengo egunian Mutrikutik deitxu zien, telefonoz, galdera hau egitxeko: "Josu, ba al dakizu nundik hartu zoan izena maiñelek erabiltzen zeuen *millotarriak*?". Azalpena eman nion, eta neure artian pentsatu noan, lehen hainbeste otarra eta orain, berriz, ixa bat ere ez.



Millotarrak

XVI. mendeko neurrixak

XIX. gizaldira arte Mutrikuko udalak denbora tarte jakin baterako jartzen zoan errentan herriko otarren salmentia, "*arrendamiento de la cestería*". Denbora hortan arduria zakan zesteruak, adostutako dirua ordainduta, herrixan otarrak saltzeko esklusibidadia eukitzen zoan. Beste iñok ezin zeikezen saldu. Otarrak mutrikuarrei ez ezik kanpotik etorritxakuei ere saldu bihar ziozen zesteruak, "*bezinos della e yentes e benientes que a ella binieren*" (1565).

1577. urtian, Mutrikuko otarrak egitxeko baldintzetan, hiru otarra klase aitxatzen dira: *cestos, cestas e banastas que hubieren menester asi para sardina fresca y arencada como para pescado fresco e saynes*. Azken hori (sain) balietatik ateratako olixua zan. Otarra bakoitzaren edukiera edo kapazidadia ere jasotzen deu dokumentuak: *cada cesto que pueda caber un millar de sardina arencada buenamente, y en cada cesta quintal y medio de pescado fresco, y en cada banasta quintal y medio de sayn*.

"Sardina arencada" hori *sardiñazarra* (*arenkia*) edo *latxa* arraiña izan leike. 1586ko baldintzak jasotzen ditxuan beste dokumentu batek argitzen digu kontua: *en cada cesto un millar de arenque*.

Holako milla arrain sartu bihar ziran otarra klase hortan. Txikixaguak ez zoan balixo. Ez dakigu zelako itxuria zakan otarra horrek, heldulekurik ete zaukan, luzexkaria ete zan, biribilla... Arrain kopuru hori, beste nunbaitx ere entzun degu: Getarixako arrantzaleren batek goguan dauka, oraindik ere, lehengo zaharrei entzunda, *millotarriak* (edo *millaotarriak*) milla sardiñaren edukieria zakala, horrek ematen ziola izena.

1590. urteko baldintzetan ere hiru otarra klase agertzen dira: *en cada çesta entre quintal y medio de pescado fresco, merluza o congrio e 9 dozenas de besugo y en cada cesto menor un millar de sardina fresca y un millar de arenque y en cada cesto mayor un millar de naranja*.

El palo del conçejo

1552. urtian hiru otarra agertzen dira, hirurak salneurri fijuarekin: *cesta de medida mayor 30 mrs [maravedis], la medida mediana o sea comun a 26 mrs e la menor llamada media cesta 20 mrs*.

Arakistain itziartarraren hiztegitxoan (1746) agertzen dan "otarrerdia" haren trazia hartzen diot "media cesta" horri. Mutrikun, gaur egun ez da erabiltzen izen hori, baina XVII. gizaldixan antzeko izen bat erabiltzen zan Mutrikun: *dos çestas que llaman oçaraerdicoa*.

Otarrek euki biharreko neurrixa (zabaleria eta altueria) ere Mutrikuko udalak erabakitzen zoan. 1552ko dokumentuak hola dakar: *e ayan de ser [otarrak] en el anchor e altor de la medida que esta en la casa del dicho conçejo [udaletxia] en un palo y en la puerta de la dicha casa del regimiento a su lado por la parte de dentro*. Udaletxian zozen, beraz, egin biharreko otarren neurrixak. 1560. urteko oiñarrixetan makilla edo egur haren kokapen zehatza jasotzen da: *la medida que esta en la arca del concejo en un palo*. Kutxa baten, ondo gordeta.

Neurrixak ez ziran txantxetan ibiltzeko kontua. Otarrak neurri jakiñak ziran, eta txikixaguak izan ezkero, diru asko geldu zeikixen erostailliek. Sasoi hartan, jenereralian, edukiera edo bolumen neurrixak erabiltzen ziran. Kiluak eta gramuak ez ziran ezagutzen. Atera kontuak, estatuan sistema metriko hamartarra edo dezimala ez zan derrigorrez jarri 1880. urtera arte.

Erreferentziazko otarrak ere euki zitxuak Udalak. 1572. urteko inbentarixuan, Mutrikuko udalak beste neurri batzuekin batera honek zakazen: *dos cestas patronas, quatro banastas, un çesto patrona (sic)*. Zalantzarik egon ezkero otarra harek hartuko ziran eredutzat.

Aldixan-aldixan herriko otarrak udaletxian zozen otarrekin alderatzen ziran. 1613. urteko erabakixak garbi azaltzen deu hori: *acordaron se aga una çesta patrona que este para que las que ay en la villa se cotexen con ella por quanto andan unas mayores y otras menores*.

Errematerik ez

1859. urtian Geronimo Arrizabalaga otarra-egintzailliak urtebeterako erramatia eskuratu zoan, *rematante de la provision de cestas para la conduccion del pescado del puerto de esta villa*. Ordura arte bezela, Udalak seiñalatutako prezio eta neurrixetan, berak zaukan otarrak saltzeko esklusibidadia. Baiña, erostailliek batetik eta zesteruek bestetik ez zixuenez bakerik ematen, Udalera jo zoan. Handik gitxira amaitxu egin zan otarren erramatia. Udalak jarritxako zerga ordainduta (*dos reales en cada carga de cesta*) edozeiñek saldu zeikezen otarrak.

Otarria ala otzaria?

Mutrikun, gaur egun behintzat, *otarria* esaten dixau; Bizkaixan, berriz, *otzaria* da zabalen dabillen hitza. Bi hitzen jatorrixan osagai edo elementu bera dago: "ot-", ogixa, hain zuzen ere. Hitz



alkarketan edo konposiziuan *ogixa* "ot-" bihurtzen da (okiña eta otordua, esaterako). Ot-+bar 'ogixa barrenian (gordetzekua)'. *Otzara* hitzak, berriz, (ot-+zara) 'ogi-otarria' esanahixa dauka.

Gorago aitxatu degun *oçaraerdicoa* (otzaraerdikoa) horrezaz gañera, Mutrikuko hitz batek "otzara" hitza dauka oiñarrixan: treostaria edo *treotzaria*. "Tretzaotarra" esaten dixue beste toki batzuetan. Tretzak eruateko ohola edo egur zapala da berez, ez da otarria, baiña, esan bezela, *otzara* hitza darama. Bixigutarako bi tretza jartzen ziran treostara bakoitzian, ondo karnatauta.

Itsas aldeko otarrak

XX. gizaldixan Mutrikuko portuan erabilli diran otarren berri eman digue bertako arrantzaliek:

Domiñua edo domiño-otarria. Portuko otarrarik haundixenak ziran. Treostarak norberaren lonjatik barkura eramateko erabiltzen ziran. 25-30 treostara kabitzen ziran bertan. Ondo jarri bihar ziran treostarak, bestela, mugitxu ezkero nahastiak sortu zeizkezen. Domiñuak atzian eta aurrian sokaz egindako ollaua zaukan, bertatik, alderik alde, *hagia* sartzeko. Egur haura bi arrantzalek eruaten zeuen, batek aurretik, bestiak atzetik. Barku bakoitzak bi domiño-otarra eukitzen zitxuan. Saltaerako potiñera kontu haundiz sartzen zan otarra haundi haura. Etxerako bueltan beste horrenbeste.



Domiño-otarria

Bixigu-otarria. 6 arrua eukitzen zeuen. Kontuan hartzen badegu bixigu arruak 10 kilo daukazela, erreza da kontua: 60 kilo inguru sartzen ziran bertan. Itsasotik bixiguak otarretan sartuta ekartzen zitxuen. Portuan, saltaerako potiñetan kofrixako moillaraiño. Eskilleretan gora, otarra bakoitza hiru lagunen artian igotzen zeuen: bat aurrian eta bi atzetik bultzaka.

Bela-otarria edo belotarria. Bixigu eta papardotarako erabiltzen ziran. Aspaldiko izena da. Sasoi baten txalopetako belak eruateko erabiltzen ei zan. Bixigu-otarria eta belaotarria bat al dira?

Millotarria edi millaotarria. Erdi biribilla zan eta erdixan heldulekua zaukan. Itsasora eruaten ziran millotarrak. Barkuko kajeratik antxobia ateratzeko erabiltzen ziran. Ur asko botatzen zakon antxobiari eta handitxik hartzen zan arraiña millotarrarekin. Eskurik esku moillara eruaten ziran millotarrak eta han antxoba-otarretan hustutzen ziran. Barku bakoitzak 12 bat millotarra eukitzen zitxuan. Santoñan ez zan ibiltzen millotarrarik, hango erostailliek urik gabeko antxobia nahixo zeuen-eta. Santoñarren esanetan urarekin zaporia galtzen zoan antxobiak. Hori dala-eta, sikuan atera bihar izaten zeuen antxobia han, palekin.

Antxoba-otarria. 40 kilo inguru sartzen ziran bertan. Antxobia, sardiñia... Millotarratik moillan zauan antxoba-otarretara botatzen zan arraiña. Barko bakoitzak bere otarrak erabiltzen zitxuan. Norberarenak zeintzun ziran jakitzeko barkuen markia eukitzen zeuen: kolore jakin batzuk eta letrak.

Lau arruako otarria. Hau ere arrain txikixak eruateko: antxobia eta estilo hortakuak. Antxoba-arruak bixiguarenak baiño kilo gehixago egitxen ditxu, 12,5 kilo. Lau arruako otarra hontan, beraz, 50 kilo inguru sartu zeikezen. Saretako antxobia despeskatzen zanian, otarra hortara botatzen zan odola galdutako arrain preziatu haura.

Itsasoko otarria. Arrantzale bakoitzak itsasora eruaten zoan otarria zan. Bertan jakixa eta bestelakuak gordetzen zitxuan. Sorbaldatik eskegitzeko sokia eukitzen zoan heldulekutzat.

Atunetako otarria edo aparijo-otarria. Atuntzuran aparijo bakoitzak bere otarratxua eukitzen zoan barkuan. Otarra txikixa eta borobilla izaten zan. Aurrerago, kajak erabiltzen hasi ziran.

Otarra zabala. Mutrikuko arrain-sailtzailliek kalian erabiltzen zeuen otarria. Andra harek batzuetan buru gaiñian eta beete batzuetan gerrixan eruaten zeuen otarra haura. Buru gaiñian eramateko, aurretik solkixa jartzen zeuen buruan, biribil-biribil eginda.

Beste otarra klase asko ere badoz Mutrikun: *otarra txanbilla, buru-otarria, zimeria, asto-otarrak...* Horrek, baiña, hurrengo baterako lagako ditxugu.

Ederra izango litzake Mutrikun egon dan otarra klase bakoitzetik ale bat bada ere gordeko bagendu. Hori egin ezkero, ume, gazte eta helduok ez genduke ahaztuko izan gerana. Azken baten, aurrera egitxeko, tarteka, atzera ere begiratu bihar degu.



Otarrak

Josu Larrañaga Arrieta

Sua Lete Sanchez

"Mexikoko egonaldia aukera ederra izan da hazteko"

2022 urteko Malenak pasa ondoren abiatu zen Sua Mexiko aldera. Unibertsitateak eskaini zion aukera aprobetxatu eta ekin zion bost hilabete iraungo zuen bizipenera. Pedagogia ikasten ari den Suak munduaren beste puntako haizeak arnastu ditu.

Mutrikutik abiatuta...

Pueblara. Puebla Mexikon dauden estatuetako bat da. Gu hiriburuan egon ginen eta milioi batetik gorako biztanleria du. Gauez iritsi ginen Mexiko Hirira eta handik Pueblara hiru bat orduko bidaia autobusean. Bidean nindoala zenbat aldiz galdetu ote nion neure buruari ea zertan nengoen ni han... Eguna argitu ondoren, aldiz, beste era batera ikusten da dena.

Eta Latinoameriketara...

Argi izan dut betidanik unibertsitatetik kanpora joatekotan Latinoamerika joatea izango zela nire helmuga. Unibertsitateak hiru aukera eskaintzen ditu: SICUE programa, Espainiako unibertsitateetan egiteko; ERASMUS, Europakoetan; eta handik kanpokoak: Latinoamerika eta beste norakoak (hemen sartzen dira, besteak beste, Txina, Japonia, AEB...).

Latinoamerikak eskaintzen zizkidan aukerak ere ugariak izan ziren; Argentina, Txile, Uruguai, Brasil, Kolonbia, Mexiko... Gurasoen eta ingurukoen aholkuak entzun ondoren Mexiko izan zen aukeratua.

Hara iritsi eta...

Sekulako inpresioa. Esan behar dut fakultateko lagun bat eta biok joan ginela elkarrekin. Joan aurretik, berriz, sareen bidez egin genuen harremana Pueblara zihoazen beste ikasleekin eta bertan elkartu ginen 10-15 euskaldun, gerora bertan nire familia izan dena. Fakultatetik hurbilen dauden ikasleen etxeetara joan ginen. Euskaldunez gain, alemaniak, kantabriarra... ginen etxean. Gure ondokoan, berriz, ingelesak, frantsesak...

Harremanak...

Unibertsitateko egunerokoa hemengoaren antzekoa zen: astelehenetik ostegunera klaseak. Bost irakasgai genituen, eta horietako bitan oso-oso gustura egon naiz. Asko irakurtzen genuen. Askotariko gaiak eta liburuak irakurri ondoren klaseetan haiei buruzko eztabaida eta solasaldiak izaten genituen; oso aberasgarria izan da. Klase magistralak ere izan ditugu. Harreman aberatsa izan dugu ikaskideon eta irakasleen artean. Gurekiko jakingura handia zegoen euren artean: nolakoak ziren gure herrialdea, gure ohiturak, gure bizimodua... Bestalde, hango jendea oso irekia da, prest dago edozertan laguntzeko, edozein esplikazio emateko. Zalantzan ikusiz gero, segituan hurbiltzen dira laguntzera... Zenbat aldiz pentsatu izan dudan "hauek hara joanez gero ez dakit guk kasu handirik egingo ote geniekeen...". Egun batzuk egin nituen gaixorik eta irakaslea kezkatuta eta prest agertu zen edozertan laguntzeko.

Zerk piztu zuen zure arreta?


Koloreak. Kolore biziak leku guztietan: etxeetan, arropetan, azoketan... Oso koloretsua da dena. Bidaiatzeko aukerak izan ditugu eta denetik ikusi dugu. Gune ezberdin bakoitzean



Etxean bizi ginen lagunok.






Pueblako merkatuko salpostu bat.


Mexikoko lagunekin.

argazki ezberdina ateratzen da, hiri handietan, leku turistikoetan hementxe bezalaxe, baina langile edo nekazari eremuetan mexikarren izaera azaleratzen da. Autobusez mugitu gara batez ere, baina ikusi egin behar dira hangoak! Ordutegia halakoa... geltokiak... Batzuetan autobusa martxan zela ateratzen ziren... Trafikoa... zoratzekoa!

Bertakoen bizimodua...

Euro batek 20 peso mexikar balio ditu, beraz, guretzat nahiko merkea izan da han bizitzea. Etxe aurrean genuen merkatua eta bertara joaten ginen jatekoa erostera. Hura kolorea! Haiek usainak! Pueblan denetik ikusten zen, denda asko zeuden eta kalean beti zarata.

Bestalde, unibertsitate publikoaren eta pribatuaren arteko aldea oso nabaria da. Pribatuetako asko guraso enpresarien seme-alabak dira, asko Europan enpresak dituztenenak. Pobreen eta aberatsen arteko aldea oso deigarria da han. Gu bizi ginen lekuan kalean bizi den jendea ikusi dugu baina, batez ere, eskean eta zeozer saltzen zebiltzan ume txikiak eta pertsona zaharrak. Dendetan, berriz, gurasoekin batera lanean aritzen ziren umeak ere bazeuden.

Zer ekarriko zenuke handik?

Zalantzarik gabe, Naturarekiko duten harremana, lurrarekin duten lotura, mundua eta harremanak ulertzeko duten modua.

Eta hemendik hara eraman?

Janaria. Ondo jaten da, baina bertako jatekoa astebukaeran jatearekin nahikoa nuen. Zapore biziak, pikanteak... ahoa sutan jartzeko modukoak. Fakultatean prestatu ziguten bertako janaria eta gustatu zitzaigun. Guk, era berean, patata tortilla eraman genien eta esan ziguten zaporerik ez ziotela hartzen.

Euskaldunon berririk?

Batzuek bai eta beste batzuek ez. Eskolatik kanpo errazagoa zen gure berri zuen jendea aurkitzea. Gure arteko harremana euskarazkoa zen eta askok galdetzen ziguten ea zein hizkuntzatan ari ginen.

Egonaldi honen ondoriorik...

Ikastaldi handia izan da niretzat. Aurreiritziekin joaten gara eta denboraren poderioz horiek aldatzen joaten dira. Denbora asko duzu zeure buruarekin egoteko eta asko ikasten da. Munduaren beste puntan zure inguruko jenderik gabe egotea aukera ederra da zu zeu hazteko.

Jendea animatuko zeunek halako esperientzia batera?

Bai, dudarik gabe. Hala ere, azpimarratuko nuke mugikortasun programetan parte hartzera animatzen gaituztela baina ematen duten laguntza oso murritza dela. Nire kasuan behintzat, unibertsitatetik jasotako dirulaguntzak ia-ia hegazkinaren joan-etorria ordaintzeko ere ez dit balio izan.





Burumendi Mendizale Elkartea

“Mendizaletasunaren transmisioa galdu da”

Mendizaletasunaren inguruan jardun dugu Burumendi Mendizale Elkartearekin. Moda berrien erritmora aldatzen doan zaletasuna dela aipatu digute.

XVII. Arnoko mendi ibilbidea burutu berri duzue. Aurtengoan, baina, aldaketak izan dira, nolatan?

Azken urteetako balorazioetan argi geratu zaigu erabiltzen dugun formatuak ez daukala aurrera egiterik. Batez ere, alde ekonomikoari begiratzen badiogu, urtero galerak izaten baititugu. Iaz, ehun eta berrogeita hamar bat oinezkok hartu zuten parte, eta lasterketan laurogeita hamar korrikalarik eman zuten izena. Aldiz, hasierako urte haietan korrikalarien parte hartzea ia bikoitza zen; ehun eta berrogei korrikalari izatera heldu ginen lehendabiziko urte haietan. Ordea, azken urteetan asko jaitsi da bai oinezkoen partehartzea baita korrikalariena ere. Horrez gain, izena emateko orduan asko eta asko azken minutura arte zain gelditzen dira, beraz, antolaketarako izugarrizko oztopoa bihurtzen da. Egia da beraien lekuan jarriz gero ulergarria ere badela, baina, aipatutako moduan guretzat izugarrizko traba bihurtzen da. Ondorioz, antolatzeko moduari ezin diogula eutsi jabetu gara: ez da errentagarria.

Urteak daramatzazue hontan, baina, noizbait hutsik egin al duzue?

Hamazazpigarrena bete dugu, eta huts egin genuen lehen urtea eta bakarra pandemia garaikoa izan zen soilik. Mutriku inguruan mendi ibilbidea lasterketarekin batera antolatzen zuen lehenetariko elkartea izan zen; lasterketak modan jartzen hasiak ziren. Horretara animatu gintuzten, eta lehen urteetan izugarrizko arrakasta izan zuen. Beno, bereziki lehen urtean ez, baina bai ordea ondorengoetan. Hala eta guztiz, beti izan dugu argi gauza bat: gu mendi taldea gara eta mendian oinez ibiltzea dugu gustuko. Horren aitzikian, hau da, mendi martxaren aitzikian, GR 22a garbi mantendu eta jendeak ezagutzea genuen helburu. Mutrikuar gehienak Arno tontorrera igotzen dira, eta segituan beheruntz abiatzen dira; Arnoren atzealdera igaro gabe. Hortaz, ibilbide osoa ezagutzea bultzatzea zen gure nahia. Hala, urteetan zehar aldaketa txikiak gehitu dizkiogu, baina, beti mantendu dugu mendi buelta.

Honek guztiak zer suposatzen du zuentzat? Nola lotzen duzue aurreko lan guztia?

Aurten berrogei bolondresen laguntza izan dugu hau guztia aurrera eraman ahal izateko. Iaz, aldiz, hirurogeita hamar bat lagunek eman zuten izena laguntzeko, lasterketa antolatzeak laguntza gehiago eskatzen baitu. Dena ongi irtetzeko beharrezkoa da laguntza hori guztia: egunean bertan izenak hartzeko, bide-gurutzeak zaintzeko eta hornidura guneetan egoteko. Gainera, kontuan izan behar dugu mendi martxa bide nagusitik pasatzen dela hainbat aldiz, horrek dakarren arriskuarekin. Segurtasuna bermatzeko bide gurutzeetan laguntzaileak edota antolatzaileak adi egotea ezinbestekoa da. Hain zuzen ere, lasterketarako zirkulazio baimenak eskatzea beharrezkoa zen, eta azken egunera arte erantzunik ez genuen jasotzen. Horrez gain, ardura guztia geure gain uzten zuten. Azken arrazoi hori aurten lasterketa ez egitearen arrazoietako bat ere izan da, besteen artean. Alegia, oinezkoak igarotzea askoz ere errazagoa da, nahiz eta kontuz ibili behar izan. Aurten oinezkoen kopurua ehun eta hirurogeita hamabira heldu da, izena emateko baldintzetako bat gutxienez hamalau urte izatea izanda. Eta, umeen irteeran guztira larogeita bederatzi parte hartzaile izan ditugu. Adinari dagokionez ez dugu baldintzarik jarri, baina, beti ere gurasoen ardurapean joan behar dira nahita nahi ez. Gazteenentzat bi ordu eta erdiko mendi buelta antolatu dugu; herritik irten, Doistura igo, Pikupera jaitsi eta handik





ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



Galdona mendira. Amaiera nagusiekin batera herriko plazan eman diote. Beraz, aurtengoa balorazio oso positiboa izan da.

Mendizaletasunari dagokionez azken urteetan aldaketa nabarmenak izan dira. Horren inguruko hausnarketarik egin duzue taldean?

Bai, noski. Azken urteetan asko aldatu da. Lehen, mendira abiatzeko taldean joaten ginen; gaur egun, aldiz, bakoitza bere aldetik joaten da. Hau da, geroz eta indibidualagoa bihurtzen ari da. Eta, hala eta guztiz, federatu kopurua igotzen ari da. Bestalde, transmisioa ere aldatu egin da. Orain dela ez urte asko gure gurasoekin egiten genituen lehen irteerak; askotan, herriko auzoetara edota inguruko mendietara. Egun, oso guraso gutxi ikusten dira aste bukaeretan beraien haurrekin mendi buelta bat egiten. Agian, bai umeak bai gurasoak, denek aste bukaeretan lotura bat dutelako izango da, gizartea aldatzen doa eta. Gure ume eta gazteek beti daukate zerbait; entrenamenduak direla, partiduak... Eta, gurasoak ere, esango genuke, asti handirik ez dutela. Esan bezala, gizartea aldatzen doa, eta, ondorioz, baita mendizaletasuna ere. Mendia lasai gozatzeko paradarik ez du hartzen gaurko mendizaleak. Ahalik eta azkarren tontorrera igo eta jeistea da askoren helburua; bertatik dagoen ikuspegiari garrantzirik eman gabe. Guk, aldiz, tontorrean lasai jan, arropak aldatu eta bertatik ikusten diren beste tontorrak identifikatzen ditugu. Aukera ona izaten da, baita, taldekideekin solasaldi politak izateko. Aldiz, presaka dabiltzan horiek ordulariari begiratu eta ahalik eta denbora gutxienean buelta ematea dute helburu. Oso lehiakorra bihurtzen ari da.

Teknologia berriak ere txertatu dira mendian...

Bai, hala da. Teknologia berriak txertatzea ez dago batere gaizki, baina horiek huts egiten duten momentuan mapa bat irakurtzeko eta mendian orientatzeko gai izan behar dugu. Mendian dabiltzan askok ez dakite orientatzen; mugikorreko aplikazioari begiratu eta, bidetik irteteko ez dira gai. Egin beharreko ibilaldiak ere ez dituzte antolatzen. Garai batean irteera prestatzeko liburuak irakurtzen genituen, mapak begiratu eta beharrezko material guztia aurrez prestatzen genuen. Ilusioz antolatzen genuen guztia. Oinarrizko nozioak edukitzea ezinbestekoa da norberaren eta taldekideen segurtasuna bermatzeko. Gaur egun, erreskate gehiago egiten dira mendian; edozein lesio txiki dela eta deitzen da 112 zerbitzura. Mendiari errespetua galdu diogula esango genuke.



Elkartetik prestatzen dituzuen irteeretara nortzuk apuntatzen dira?

Irteera horiek Markina, Deba, Ondarru eta Mutrikuko taldeen artean antolatzen ditugu. Eta parte hartzaileen bataz besteko adina berrogeita hamabost urtekoa dela esango genuke. Laister Palentziara daukagu irteera eta hirurogeita lau bat lagun joango gara; gazteenak berrogeita hamar bat urte izango ditu. Irteera horietan bakoitzak bere erara moldatzen du ibilbidea; bakoitzak bere gaitasunaren arabera. Hori bai, irteerako eta bueltatzeko ordua denok errespetatu behar dugu, autobusaren menpe baikaude.

Espeleologo taldea ere baduzue...

Bai, taldekide berriak dira hauek, eta oso gustura gaude beraiekin. Filosofia bereko elkartekideak dira; presarik gabe ibiltzen dira, gu geu bezala. Aurki, Larrako espedizioa izango dute, eta buru-belarri hasi dira horretan. Laister ikusiko ditugu kamisetak saltzen. Horrez gain, datorren azarorako orientazioko proba bat ere prestatu nahi dugu; herrian ibilbide bat egingo da, eta aurrez ikastetxeetan landuko da.

Aurrera begira, zeintzuk dira zuen nahiak?

Hogeita hamar urte daramatzagu mendizale elkartean; honenbestez, aldaketa eskatzen dugu. Jende gazteak hartu behar du lekukoa, eta aurrera jarraitu beraien erara. Baina, badirudi gazteek konpromisorik ez dutela hartu nahi. Esango genuke kontu orokorra dela erreleboarena, ez baita gure elkartean soilik gertatzen. Gure azken urteetako helburua umeak eta gurasoak inplikatzea izan da. Mendizaletasunaren transmisioa ez dadin eten.



BERISTAIN
ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

Camping
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
eguneko menua daukagu
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

....ZORIONAGURRAK....



GAROA
Zorionak, maiatzaren 29an 11 urte dagoeneko!!
Mila muxu danon partez!!



EKIA
Zorionak gure mamorrituai!!!!
Matxe zaitxugu!!!!!!



EKIA
Zorionak sorgin txiki!
Ondo-ondo pasatu zeure eguna, igual sorpresatxon bat jasoko dezu!
Muxu potolo pilua ixeko zoruan partez!



GARAZI
Zorionak Garazi!
Ondo pasa eguna eta disfrutatu merezitako oporrak.
Muxu handi bat.



LIBE
Zorionak Libe!
3 urte familixa osua alaitzen!
Segi holaxe!!



JULEN
Bada denboria Gasteiz alde hortan galdu dala, baina ezin geure mutilakin ahaztu, ZORIONAK!
Badator San Juan eguna, badator zure eguna, badator udiaaa! Asko eta aske zatxugu matxe!



AMAIA
Azken denboran berri pozgarrixak baino ez ditxuzu ekarri gure artea, beso zabalik hartzeko modukuak, zeu bezalaxe!
Badakau zer ospauuu, ZORIONAK! Asko eta aske zatxugu matxe!



BEGOÑA eta KLARITA
Udaberriko bi lore eder hauei zorionak opa dizkizue familikoak, ekainean urteak betetzen dituzuelako.
Jarraitu umoretsu eta alai.
Ospatzeko gogoz zain izango gaituzue.



LARRAITZ
Merezitako oparrak heldu zaizkizu-eta, baita ere zure urtebetetzea. Gozatu eta gogoz ospatu! Baina ez ahaztu txokolatea prestatzeaz, badakizu, gu jateko eta edateko prest izango garela.



UGAITZ eta IRAIA
Zorionakkkk Ugaitz eta Iraia!!!!!
Uztailak 13an 7 urte haundi. Ondo-ondo pasa eta muxu haundi asko etxeko guztien partez.

LAGUNA
Zorionak lagun, lagun zarelako!



e-postaz: kalaputxi2001@gmail.com ## whatsapp: 635748393

OKINDEGIA
POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512

aparra
ZURETZAKO MODA
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

Argazki Zaharrak



1959 urtean, Ametzanean
Miel Elezgarai "Santuko" eta Mari Carmen Ozkortaren ezkontza egunean
Maria Angeles Elezgarai "Santuko", Esther Basterretxea "Potero", Leonardo Zenekorta, Maite Etxaniz (markinarra), Nerea Ozkorta, Miren Zubizarreta "Ametza" eta Rosarito Basterretxea "Potero".





2023ko farmazia guardiak

Egunak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
Ekaina	2	1	1[3]	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	2[4]	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	
Uztaila	1[3]	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	2[4]	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	1[3]	1	4

Eguneko farmazia-guardia zerbitzua (09:00 - 22:00)

1	Hiart Burgoa		Deba	Astillero kalea 2	943 19 18 12
2	Amaia Zalduegi		Deba	Lersundi kalea 20	943 19 10 55
3	Lon Apraiz	3 Zapatu goizetan	Mutriku	Erdikokale 5	943 60 32 50
4	Lasuen - Elezgarai	4 Zapatu goizetan	Mutriku	Txurruka tenienteen etorbidea 3	943 19 50 26

Gaueko farmazia-guardia zerbitzua (22:00 - 09:00)

	Cristina Sanchez Castaño		Eibar	Julian Etxeberria kalea 7	943 20 30 52

ekainak 23, ostirala
San Juan bezpera: Kalejira eta sua

ekainak 24, larunbata
Traineruak ARC2 liga: Yurrita Group Bandera

Anaiarte abesbatzaren kontzertua
Txurruka plazan, 23:00etan

ekainak 29, osteguna
San Pedro eguna
Itsasoan galdutako mutrikuarrei omenaldia
Eguerdian, portuan

uztailak 1, larunbata
Mutrikuko Musika Banda
Txurruka plazan, 23:00etan

uztailak 8, larunbata
Akordeoi taldea eta Madalen abesbatza
Txurruka plazan, 23:00etan

uztailak 15, larunbata
Merkatu txikia + atun errea
Moilan, 09:00-14:00

Gure Ametsa Dantza Taldea
Txurruka plazan, 23:00etan

MALEN JAIAK

uztailaren 21etik 25era

BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela ·
· Olatu planta · Nautilus, Flyscheko fosilak ·
· Arrietakua jauregia ·

Egunak, ordutegiak eta hizkuntza kontsultatzeko:
Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

ODOLA EMATEA

ekainak 23

· abuztuak 18 · urriak 20 · abenduak 15 ·

17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsappa 635748393
uztaileko aldizkarian
argitaratzeko
uztailaren 7rako
bidali zuen mezuak

MENDI IRTEERAK

Burumendi Mendi Elkartea

uztailak 9 Orduña gaina-Altube gaina (Uren banalerroa)

irailak 10 Ezkabako ihesa 2. Etapa (Olabe-Saigots)

urriak 22 Ordunte-Zalama

azaroak 5 Etxaguen-OKETA-Ubidea

abenduak 3 Ondarru

adats ANDONILARREA
www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak
Hondartza kalea 13 DEBA
Tel. 943 19 27 00

EROSKI city

Gure bezeroengandik beti hurre









okindegia · fruitategia · harategia · urdaitegia · eta beste

asteazkenetan eta ostiraletan erosketak etxera eramateko aukera

San Agustin 10 · Mutriku · Tel. 943 60 36 11

IBARPLAS

· LEIHOAK · ATEAK ·

Itziarko Poligonoa, C5
20829 ITZIAR
Tel: 943 19 92 26

www.ibarplas.com
email: ibarplas@ibarplas.com

CONSERVAS

YURRITA

1867

GASTRONOMIKA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA



Zuzeneko salmentaren udako ordutegia:
Astelehenetik-ostiralera 09:00-18.30 Larunbatak 10:00-14:00

Online salmenta:
www.yurritagastronomika.com

sarean edota dendan erosteagatik

% 20ko deskontua

kupoi hau aurkeztuz

ZUZENEKO SALMENTAN
50€tik gorako erosketetan,
uztaila eta abuztuan erabilgarri

ONLINE SALMENTAN
50€tik gorako erosketetan
ondorengo kupoia sartuz:
KALAPUTXI